

Lagos herrixka

Lagos Erdi Aroko herrixka Caicedo Yusoko lakuaren ondoan zegoen, Gesaltza Añana hiribildutik 4 kilometrora, hegoaldean. Existitu zela gogoratzeko Aintzirako Andra Mariaren ermita dago, bertako parrokia eliza izan zena.

Lagos herrixkaren jatorriari buruz datu gutxi daude. Aparkalekuan egindako esku hartze arkeologikoan historiaurreko kronologiako zenbait hondar agertu ziren, bereziki Brontze Arokoak, eta hala, kanpoan bizi zen habitat txiki bat egon zela adierazten dute horiek, haranaren eremu laua hasten den lekuan. Hurrengo populamendu zantzuak desagertutako herrixkakoak dira.

Arkeologia lanetan agertutako etxea X. mendekoa dela uste da, eta hala, herrixkari buruz gaur egun dagoen daturik zaharrena da. Herrixkari buruzko lehenengo testigantza idatzia, ordea, XI. mendekoa da.

1025 –“Donemiliagako nabarra” izeneko agirian, Araba erdigunea izeneko eremuko zenbait herri adierazita daude, San Millán de la Cogollako monasterioari tributua ordaintzen ziotenak burdinazko nabarretan. *Lagus* izena du *Ossingani* merindade barnean, nabar bat ordainduz.

*“...Ossingani, XXV regas: Paves, una rega. Arbigano, una rega. Basconguelas, una rega. Erenna, una rega. Cassicedo, una rega. Castellu, una regga. Padul, una rega. Billa, una regga. Arreio, una rega. **Lagus, una rega.** Cassicedo, una rega. Licingana, una rega. Cassicedo, una rega. Antepardo, una rega. Moliniella, una rega. Olibani, una rega. Moscatuero, una rega. Comungoni, una rega. Torreziella, una rega. Arzillana, una. Billa vizana, una rega. Lunantu, una rega. Ripa, una rega. Torrisu, una rega. Carasta, una rega....”.*

1156- “Lagos” izena lehendabizi 1156ko agiri interesgarri batean agertu zen. Bertan, Añana inguruan bizi ziren biztanleen inbentario bat egin zen, eta Santo Domingo de la Calzadako (Errioxa) elizari urtero gatzetan ordaintzen zioten zenbatekoa ageri zen. Zehazki, 12 herrixkatan bizi ziren 333 bizilagun ageri dira. Hauek dira herrixkak: Terrazos, Fontes, Villacones, Billa, Orbon, Santa Maria, Villambrosa, Basquiñuelas, Arbigamo, Arreo, Billa eta Lagos (Plata, A.. Lehenengo seiak Añanako gatz haranetik gertu zeuden eta XII. mendean zehar desagertzen joan ziren Gesaltza Añana hiribildua sortu zelako eta haraneko biztanleak nukleo berean batu zirelako. Gainerako herrixkak gatz haranetik kanpo daude, baina 5 km-ko erradio barnean, eta guztiak ere gaur egun mantentzen dira, Lagos izan ezik.

Lagos herrixkak emandako gatz dohaintza **2,16 modio**-koa zen (17 kg inguru), guztira 14 pertsonak osatutako 7 familiatan banatuta, eta horien izen-abizenak ageri dira. Ikus daitekeen bezala, gatz ustiapenarekin harremana zegoen eskualde osoan, baina ez dakigu zuzena edo zeharkakoa zen, hau da, ez dakigu Lagoseko biztanleek gatzezko larrainak zituzten Añana haranean ala ez.

*“De consilio de **Lagos**: don Gonzalvo el clerigo, II, quarteros; don Martin Petriz et Maria Teiliz, uxor sua, I, quartero; don Sancius Martinez et Godo Telliz, uxor sua, I, quartero; dona Maria Gutierrez et euus filius don Enego et Alvaro Alvarez et uxor sua Sancia Teiliz, I, quartero; don Dominicus Beilaz et Maria Ioanes uxor sua, II, quarteros; Miguel Munioz et Maria Gonsalvez, I, quartero; Maria Teiliz, I, sestero”*

Pág. 30/SDLC, Cartulario I, fol 23r°-23v°

UBIETO ARTETA, A. (1978): Cartularios (I, II, III) de Santo Domingo de la Calzada en *Textos medievales*, 56. Zaragoza

Herrixkan apaiza zegoela ikusi da, eta beraz, XII. mendearen erdialdean herrixkan eliza zegoen. Ez dakigu hala ere jatorria, ez baitago horri buruzko dokumentazio zaharragorik.

1257: Hurrengo aipamena mende bat geroago egin zen, Calahorrako Jerónimo Aznar apaizaren eta Calahorrako eta La Calzadako katedraleko kapituluaren arteko hitzarmena jasotzen duen agirian, Calahorrako elizbarrutiko herrixken zerrendan. “Erribera” artzapez barrutian agertzen da Lagos (UBIETO ARTETA, A. Un mapa de la diócesis de Calahorra en 1257, RABM LX, 375-394. orr).

Dokumentazio arkeologikoan eta idatzizkoan ikus daitekeen bezala, X. menderako bazegoen Lagos herrixka, eta XIII. mendera arte inguru horretako herrixka bat gehiago bezala jasota dago. Herrixka uzteko arrazoiei eta une zehatzari buruzko informazio zuzenik ez dago. Badakigu XV. mendeko lehenengo erdian kontzeju bezala agertzen zela:

1420: 1420ko urriaren 8an Gonzalo Ruiz de San Vicentek, Sajazarrako bizilagunak, eta Hortún Sánchez de Caicedok, Erriberako ohiko alkateak, emandako epai arbitrarioan, Gesaltza Añana hiribilduak eta Basquiñuelas herrixkak zituzten iritzi ezberdinetan, beraien mugarte propioetako eta bakoitzak zituen larre eskubideen banatze lerroaren trazatuari dagokionez:

*“...Conçejo e ommes buenos de Bascuñuelas e Villoria e Arreo e **Lagos** e Vi/*

llanbrosa. Yo, Juan Hurtado de Mendoça, mayordomo mayor del rey,/

vos ynbio saludar.....

*“.....razon que sea, espeçialmente sobre razon de los terminos e prados e pas/
tos e dehesas que son entre Bascuñuelas e Villoria e Arreo e **Lagos**/
e Villanbrosa, lugares de mi, el dicho Juan Hurtado....”*

A. M. de Salinas de Añana – Gesaltza. Caja 42. Nº 1.

Archivo Municipal de Salinas de Añana - Gesaltza. Documentos (1400-1517)

Hala ere, XV. mendearen bigarren erdialderako ez zegoen agiri fidagarririk, Lagosen egoera zer nolakoa zen ziurtatzeko modukorik. Izan ere, 1489ko agiri batean, Lagos aipatzen da, baina ez da zehazten herrixka den, edo inor bizi den han ala ez.

1489: 1489ko ekainaren 7an Pedro Fernández de Gaunak, Komunioiko alkateak, eta Pedro Sáenz de la Plazak, Gesaltza Añanako alkateak —arbitro epaileak, biak ere— emandako epai batean, Gesaltzak Biloriarekin zituen ezberdintasunetan, bakoitzaren mugarte propio eta komunei dagokienez.

*“E desde lo alto fuimos/ hasta la parte de **Lagos**, encima de las/ piezas que
labra Juan Martinez, ferrero,/ mandamos poner aqui e pusimos un mojon/ en
un morocal pegado a una peña rasa,/ en las partes trabiesas estan otros en/
unos moracales.....”*

*“.....E desde alli mandamos/ poner e pusimos otro mojon pegado a (Rúbrica)
(Fol. 4 rº) una peña delante otra peña redonda,/ cerca del mojon de Caicedo, a
ojo de **Lagos**,/ hasta en el lomo alto, delante de dicho mojon/ una peña pequeña
que tiene un resquicio/ en medio.....”*

A. M. de Salinas de Añana – Gesaltza. Caja 41.
Nº 2-3.

Archivo Municipal de Salinas de Añana - Gesaltza. Documentos (1400-1517)

XVI. mende erdian Lagosen jada inor bizi ez zela adierazten duen dokumentazioa dago; Calahorrako diozesiak egindako pastoral bisitan eta *El libro de visita del licenciado Martín Gil* izeneko liburuan, Lagoseko Santa Maria —herrixkako aspaldiko parrokia— Caicedo Yusoko ermita bezala agertzen da.

CAIZEDO DE YUSO

*“Yten hallo que en término del dicho logar ay estas hermitas: Sancta María de **Lagos** y Sancta María Magdalena; tienen de renta asta dos fanegas de pan; y están unidas a Sancta María, iglesia mayor del dicho logar”*

DÍAZ BODEGAS, P.: Libro de Visita del Licenciado Martín Gil, Logroño, 1998

Ikus daitekeen bezala, 1420tik XVI. mendearen erdialdera arteko uneren batean utzi zuten biztanleek Lagos herrixka, eta 1489ko agirian ez da argi agertzen egoera. Ez dakigu bizilagunek zergatik utzi zuten herrixka ere.

XIX. mendean leku horretan eraikinen bat zegoela jasotzen duten agiriak idatzi ziren, baina horietan Lagos ez da herrixka bezala aipatzen. 1863ko izendegian, Caserío de Lagos izeneko epigrafean, leku horretan bi eraikin-baserri zeuden, bata okupatua eta bestea ez, eta ermita. Becerro de Bengoak ere 1880ko *Descripción de Álava*-n hauxe jaso zuen:

“El aspecto del lago es sombrío y triste. Ásperos caminos conducen a él; rodeanle cerrados bosques y solitarios cañaverales y solo una ermita y casa de labor representan la vida de tan retirado lugar.”

“No hace muchos años los vecinos de Salinas construyeron un gran bote para distraerse surcando las aguas de la solitaria laguna, y si bien al principio se vio muy favorecida la afición náutica, que dio lugar a alegres expediciones y múltiples peripecias, la excesiva distancia, la poca novedad del espectáculo que pronto se hizo viejo, y las constantes ocupaciones del vecindario, hicieron que la idea y el barco se abandonasen pronto.”

Becerro de Bengoa, R: *Descripciones de Álava*.pp.323-324

“Ur azpiko bentaren” kondaira

Leku honetan “ur azpiko hiria kondairaren” moldaketa bat dago, Europako zenbait herrialdetan (Alemania, Frantzia eta Espainia) errotuen dagoen kondairarena, hain zuzen ere. Ahoz helarazitako kondaira da, eta hainbat bertsio daude. Aukeratu duguna Vicente García de Diegorena da, 1953an idatzi zuen *Antología de Leyendas de la Literatura Universal* lanekoa, eta Emilio Palacios Fernándezek transkribatu zuen artikulu honetan: “La venta sumergida. Estudio del origen y evolución de la leyenda.”

“Hace mucho tiempo, en el sitio que hoy ocupa el lago, existía una venta, cuyos propietarios se habían enriquecido en pocos años. Un día, llegó a la puerta de la venta una mendiga que llevaba un niño de poca edad en los brazos. La mendiga era una mujer joven, de rostro muy bello, aunque demacrado por la fatiga y el hambre; se detuvo ante la puerta y pidió que le hicieran la caridad de proporcionarle algún alimento. Los criados fueron a decírselo a los

dueños, que se disponían en aquel momento a comer. El dueño ordenó que pusieran en el horno una cantidad pequeña de masa para cocer un pan. Pero cuando sacaron el pan del horno, la pequeña cantidad de masa había aumentado, sin que se supiera cómo, y el pan era muy grande. Se juzgó que era excesiva limosna y el dueño ordenó que de nuevo se pusiera a cocer una cantidad de masa inferior a la de la primera vez. Y ocurrió lo mismo. Por tercera vez repitieron esto. El dueño mismo cogió una cantidad pequeñísima y la puso en el horno; cuando estuvo cocida, la sacó, y el pan era mayor que las veces anteriores.

Entonces, irritado, dijo: ¡Qué echen a esa mendiga de la puerta!

Una criada fue a cumplir la orden del amo; pero como era de sentimientos caritativos, cogió un trozo de pan de su propia comida y se lo dio a la pobre mujer. Ésta dijo a la criada que la siguiera, pues una gran desgracia iba a caer inmediatamente sobre la casa. La criada obedeció y echó a andar detrás de la mujer con el niño en brazos. Conforme iban andando, la mendiga se iba transfigurando; sus ropas harapientas se transformaron en hábitos hermosísimos; su rostro se iluminó de un resplandor celestial. La criada comprendió que era la Virgen, que se había aparecido, y en el momento en que iba a arrodillarse, oyó un ruido terrible. Volvió la cabeza y vio que la venta había desaparecido y que en el sitio que ocupaba había un lago. La Virgen, también había desaparecido. Comprendió la criada que lo sucedido era un castigo a la falta de caridad del dueño.

Fue al pueblo cercano y contó lo ocurrido”.

García de Diego, V. (1953): *Antología de leyendas de la Literatura Universal*, Tomo I, Barcelona, pp.342-343

Palaciosen arabera, kondairaren jatorria epika germaniarrean dago; galiar lurretatik eta penintsulatik hedatuko zen Erdi Aroan, Done Jakue Bideko erromesen bitartez. Jatorrizko kontakizun paganoak kristau tradizioko ezaugarriak hartu zituen Bibliako zenbait pasarteetan bitartez, halaxe adierazten baitu Europako bertsio gehienetan norberekeria izateak bekatu nabarmenena, eta apalek salbatzea lortzen dute gehienetan. Kondaira, kristautzean, gehiago hedatu zen.

Kondaira eraldatu egiten da, lurralde bakoitzeko baldintzetara egokituz. Arabako bertsioa ur aspiko benta bati buruzkoa da, igarotzeko lurraldea zelako, eta penintsulako gainerako adibideak bertako ingurura moldatuta daude.

Asturiasen, Enol lakuan, mendian, artzainak dira protagonistak, eta Leongo kondairan Carucedo lakuan urperatutako abadiaren istorioa kontatzen dute.

Caicedo Yuso-Arreoko lakuan urperatutako bentaren istorioan Ama Birjina da protagonista, eskalea. Hori ez da kasualitatea, Palaciosek esan bezala Araban Ama Birjinarekiko debozioa handia baita, eta horren adibide garbia da Aintzirako Andra Mariaren ermita.